

ERABAKIA, EPAIMAHAIARENA, BIGARREN SAILKAPEN TALDEA, GESTIOKO MAILA ERTAINEKO TEKNIKARIEN KATEGORIAN, GESTIO ESPEZIALITATEAN, LAN KONTRATUDUN LANGILEAK SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2018KO AZAROAREN 2KO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.

8.6 oinarri orokorrak honako hau ezartzen du: *"Hautaketa prozesua amaiturik, epaimahaiak prozesua gainditu duten pertsonen behin behineko zerrenda argitaratuko du, hilabeteko epean gehienez ere, UPV/EHUko iragarki oholean eta unibertsitateko webgunean. Interesdunak puntuazioaren arabera hurrenkeran azalduko dira, eta zerrendan zehaztuko dira bakoitzaren izen-deiturak eta NAN zenbakiaren, atzerritarren identifikazio zenbakiaren edo pasaportearen edo dokumentu baliokidearen zenbakiaren azken lau zenbakiak, eta prozesuko fase eta atal bakoitzean lortutako notak.*

Gainditu duten pertsonen behin-behineko zerrendak argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak jartzeko.

Epe horretan bertan, gainditu duten hautagaiek lanpostuak eskatuko dituzte, beren preferentzien arabera hurrenkeran.

Hautaketa prozesuaren azken kalifikazioa oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortutako puntuazioen batura izango da.

Prozesua gainditutakoen artean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauen arabera erabakiko da hurrekera:

1. Lanpostuetan igarotako denbora handiena, egunetan zenbatua, UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan Kontratudun Langileen Hitzarmenaren aplikazioaren eremuan, deialdiari dagozkion kategorian eta espezialitatean.

2. Lortutako puntuaziorik handiena, administrazio publikoetan emandako zerbitzuen atalean.

3. Lehiaketa fasean lortutako puntuaziorik handiena.

4. Oposizio fasean lortutako puntuaziorik handiena.

5. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legeak 27.2 artikuluan zehaztutakoari jarraituz, berdinketak bere horretan jarraitzen bada, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia %40ren azpitik dagoen administrazio kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.

6. Irizpide hauek aplikatuta ere berdinketa hautsi ezin bada, alfabetoaren arabera hurrenkera aplikatuko da, eta lehen pertsona izango da lehen abizena hasten zaiona Estatu Idazkaritzak urtero egiten duen zozketan ateratzen den letrarekin, oinarri hartuko den zozketa deialdia argitaratzean indarrean dagoena izanik (364/1995 ED, martxoaren 10ekoa, Estatuko administrazio orokorrean sartzeari eta estatuko administrazio orokorreko funtzionario zibilen lanpostu hutsak betetzeari eta haien promozio profesionalari buruzko Arautegia onartzen duena, 17. art.)."

Horrenbestez, hautaketa-prozesu honetako epaimahaia bilduta, eta adierazitako oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.– Gaindituen behin-behineko zerrenda argitaratzea, lortutako puntuazioaren arabera eta hautaketa-prozesuko fase guztietako nota partzialak jarrita.

BIGARRENA.– Iragakia argitaratzea UPV/EHUko Lan Eskaintzen Atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp); bertan ikusi ahal izango da gaitutuen behin-behineko zerrenda.

HIRUGARRENA. – Hamar (10) egun balioduneko epea zabaltzea, erabaki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hautagaiek erreklamazioak egin ditzaten. Erreklamazioa idatzi bidez egin beharko da, idatzia UPV/EHUn horretarako zehaztuta dauden erregistroetan aurkeztuta, edo 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan zehaztutako leku horietako batean aurkeztuta. Edozelan ere, kontuan hartu beharko da aipatutako legearen azken xedapenetako zazpigarrenean ezarritako salbuespena, hain zuzen ere, erregistro elektronikoari buruzko lege-aurreikuspenen aplikazioan indarrean sartzeko bi urteko epeari buruzkoa.

Leioa, 2021eko ekainaren 22a

Ainoa Larrinaga Larrazabal
Epaimahaiko idazkaria